

CC 00
Kutzabank
atal
sindikala

Araba Pº de la Biosfera 6
01013 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 162 455

Bizkaia Rodríguez Arias 5, 1º
48008 Bilbao
Tel.: 944 017 024

Gipuzkoa IBAETA
Portuetxe 10
20018 Donostia
Tel.: 943 001 425

ccoo@kutzabank.es
kutzabank@servicios.ccoo.es

<http://www.ccoo-servicios.es/kutzabank/>

Zk. 37 2016ko otsaila

1

Urtebetetzea

2015 ez zen beste urte arrunt bat izan, beste edozein urte bat bezala, 2015 urte bukaera Villalabeitia jaunaren lehen urteurrenaren lekuko nabarmena izan zen.

Oraindik gauza asko ez ditugu batere argi, bere aurrekaria ez zelako boterearen gustukoa, edo deserosoak zirelako bere hitzak, edo eredugarria zen gestioa baztertua egotera igaro zelako, gure entitatean erori zen... Mario jauna, joan zen, edo baliteke kaleratua izatea.

Presidente berria, konkorrera atxikitutako erronka berriekin dator, "Kutzabanken zenbakiak altxatu behar dira, eraginkortasun ratio deitoragarriak baititu". Hau da, eta ez beste ezer, daukan helburua, eta behar beste egingo du, hura lortzeko. Urtean zehar gauza asko aldatu dira, kaudimenean liderrak ginela lekuz leku saltzetik, kikiltzera eraginkortasun tasaren ratioaren argudioarekin, oraindik ere tabu.





Lehenengo urteurren honetan, helburuetan egondako aldaketak, ez dira ezaugarri bakarra izan. Gizarte eragileekiko harremana, langileriaren ordezkariak, onargarriak izatetik aldaketaren aurretik, baliogabekoak izatera txandakatzearen ostean. Gure presidenteak jarrera eskuraezina mantentzen du, eta nahiago du posta bidezko komunikazioa. Barkatu *El Correo* bidezkoa, aurrez aurreko kontaktua baino



Ez da 2015ean Kutxabanken inguruan berririk izan, langileria komunikabide honen bitartez jaso ez duenik. Ez du guri eragin eta aieratu ez duen eskandalurik egon. Bere lehen urtean, gehiegitan izan gara egunkari honen azalean, eta ez da berririk egon, nahiz eta positiboa izan, gure irudi serio eta kompetentea zikindu ez duenik. Lotura eta leialtasuna helburu duen negozio plan berrian, nabaria da bezeroaren arretan, jasandako tratu txarrak.

Presidente jauna, aldatu komunikazio politika! Ez zabaldu zure interesen arabera lau haizetara zure helburuak baina guri dagozkigun gaiak! Kutxabanken ingurukuak direla- eta, hitz egin aurrez aurre langileon ordezkariekin!



Beste gai batzuk ahaztu gabe,

hortxe daukazu 2016rako erronka berria!

2015

gogorra ere gogorra

Sindikatuaren ikuspegitik, 2015. urtea oso korapilatsua izan zen. Zabaldutako fronteak asko izan ziren: Kutxabankeko II Lan Hitzarmena, Arabako plantillan bonusak dirala-eta gertatutako diskriminazioa, eta 500 kideri gora behera azken bost urteotan nominetan amatasun/aitatasun baimenagatik likidatutako nominak zuzendu, enpresa-zuzendaritzaren aldetik informazio falta eta alde sozialaren gutxiespena, Mikel Cabiecesen kasua, presidentearen soldatarena... Hori guztiori dela-eta, interesgarrienak gogora ekarri nahi izan ditugu.

	Ordez.	%
CCOO	51	0,36
ELA	31	0,22
LAB	21	0,15
PK	25	0,18
ALE	10	0,07
ASPEM	3	0,02
ASPRO	1	0,01

Urte hasieran, hauteskunte sindikalak -Kutxabank moduan lehenengoak- egin ziren, eta euren bidez plantillaren iritziz bakoitzari bere lekua eman zioten. Lanposturik gorenean ere berri handia eduki genuen: presidente berria bere aulkiaren jabe zela, diskrezioz –edo diskrezio barik- ozen ere ozen behin eta berriro esaten zuen entzun nahi zuen edonorentzat, berak bere ustez efizientzia edo eraginkortasun arazoak zeuzkan enpresa-zenbakiak altxatuko zituela. Horixe sorpresa plantillak hartu zuena! Kaudimen edo solbentzian burua izatetik, eraginkortasun-ratioan azken-azkenak izatera!

CCOO

%1,5

Lehenengo eta behin, hitzarmena bete: **urtarrilean** %1,5eko soldata gora-egitea, gerora ondo baino hobeto etorri zaiguna, ezta?, Euskadiko IPC-XPIren %0,3koa eta %0koa estatukoa ikusita. Eta beste gauza bat: 2014ko amaieran lan-hitzarmena bertan behera zegoenez, enpresari inongo luzapen barik hitzarmena berregiteko negoziatzen jesar zedila exijitu genion.



Cabieces kasua ia-ia konturatu barik agertu zen. Langile guztion harridurarako, kargua uzten eta kargua hartzen duten presidenteen arteko gerra dialektikoa bihurtu zen; hedabideetan presentzia sistematikoa izan zen, eta euren bidez ezagutzera eman zen presidente berriaren eskandaluzko soldata (gaur gaurkoan gure ustez onargarria ez dena)... Larregikeria hori dela-eta, han **otsailean** geure artean esaten genuen, bada, kaudimenean lehenak izanda, ez ote garen eskandaluetan ere lehenak bihurtu.

Martxoan, entitateak paralisia jota zegoen beldurrez, CCOO sindikatuak enpresari egiten zion proposamena argitaratu genuen: eraginkortasun-ratioa hobetzeko prejubilazio eta kontratazioen bidezko egitasmoa. Bereak eta gehiago egin behar izan ziren enpresa berbetan hasteko, eta egia esanda, azarora arte ez zen lortu beharreko jubilazioen izenpea.

Apirilak ere bere berriak ekarri zituen: hitzarmenean sinatu zen bulegoen sailkapenak 539 pertsona kokatzen zituen karrera profesionalen, eta guztira 980 kide bulegoetako zuzendaritza edo zuzendaritza-ordezko lanpostuak betetzen. Apirilean bertan jakinarazi genion enpresari auzitara eramateko asmoa Arabako plantilla guztiari egindako diskriminazioa ordainketa aldakorren bonusa delakoagatik, besteen kopuruaren %40 inguruan zena. Aurrerapausu horren eraginez, enpresak bere jarrera berraztertu zuen eta ados jartzeko prest agertu zen.



Apirilean emakumeak Kutxabanken daukan benetako egoera erakutsi nahi izan genuen, eta zuzendaritza-postuetan zegoen (eta dagoen) diskriminazio garbia salatuz genuen: zuzendaritza altuko postuetan %15 baino ez dira andrezkoak, hierarkizatutako lanpostuen artean %32, eta holan segi eta segi entitateko mailaz maila. Enpresarekin hizketan hasi eta Berdintasun plana negoziatzen hasi ere hasi egin ginen, arinarin ez doana, urtebete geroago amaitu barik dago-eta.

Eta nork esango zigun, bada, gauza txiki batek zoratu egingo gintuela **maiatzean!** Bezeriari emandako ustegabeko deiaren bidez, metatutako puntuen iraungitzea zela-eta, bulegoak jendez bete zitzaizkigun eta opari kaxaz ere bete zitzaizkigun, gauzak horrela, negozio arrunterako lekurik ez zela praktikan geratu. Kexak eta elkarrizketen bidez lortu genuen, behintzat, opariak emateko modua aldatzea, baina ordurako kaltea eginda zegoen.



Ekainean, sekulako albistea: habemus kontseilari delegatuam! Kutxabanken sekula ezagutu izan ez den figura. Arrapaladan eskatzen diogu hitzarmen laboralaren inguruko negoziazioa behinik behin traba barik aurrera ataratzeko. Eta gainera, ekainean antzeman genuen amatasun baimeneko lankide askoren nominak likidatzeko eran bazegoela errakuntza bat, eta berehalakoan Giza Baliabide atalekoei honen berri eman genien.

Astiro-astiro baina uda ere heldu zen. Eguzkia ezezik, plantillaren eguneroko kudeaketaren arazoak ere ekarri zituen: lanpostuen aldaketak programatutako oporraldi erdian, lehenagotik egindako oporren planifikazioa bertan behera utzi zutena. Oraingo haserre hau lehenagoko Zentraleko lanpostuen sailkapenaren erabateko porrotak ekarri zuenari batzen zitzaion, batez be langile askori ez zietelako aitortu ez euren profesionaltasuna, ez ardura.



CCOO



Uztailak berarekin ekarri zuen txarto likidatutako nominen arazoaren konponketa, enpresarekin ados egindakoa. Bakoitzari berea: entitateak bikaineko jarrera erakutsi zuen eta likidazioak zuzendu eta diruzorrak ordainduko zituela agindu zuen.

Beste alde batetik, presidentek bere erritmo propioan negozioa garatzeko egitasmoa ontzat eman zuen. Egitasmo horren zertzelada batzuk baino ez zituen erakutsi baina egitasmo horrek langileei egoera eskasa ekarriko zien: bulegoak zarratu, murrizketak plantillan...Eta hori guztiori zabaldu zuen hedabideetan, aurretiaz sindikatuekin berba erdirik ere egin barik.

LEGEZ KANPOKO
ordutegiari
Kutxabanken

CCOO



EZ

Udatik bueltan, isileko mehatxu gehiago (“*Kutxabankek odol-izerdia bota beharko du...*”) entzunda, **urrian** azkenean enpresak onartu zuen jesartzea eta negoziatzea aurrejubilazio egitasmo bat, ganoraz, hasiera batetik negoziazio arinean jardutekoa, eta horrekin batera aurrejubilatzeke baldintza askoz ere zabalagoak zekartzana.



Negoiazioagaiak bideratu egin genituen baina azarora arte ez genuen lortu zorioneko lan hitzarmena: hitzarmen horrek 300 aurrejubilazio ziurtatu zituen (pertsonalaren kontuen emaitzak nabarmen hobetzeko), enpresarekin lotura ezarako borondatezko neurriak berriztu zituen eta etorkizunerako lasaitasun handiagoko egoera bermatzen zuen. Hala eta guztiz ere, enpresak ezeke biribila eman zion lekuz aldatutako pertsonak euren jatorrizko lekuetara bueltatzeko posibilitatea aztertzeari.



Azaroan bertan 500en bat lankide emakumezko amatasun baimenaldian kobratu gabeko diruak eskuratu egin ahal izan zituzten eta horrelaxe jaso zituzten nominak. Eta gainera, hil honetan ere konponketa bidean jarri genuen enpresarekin batera bonus arabarra delakoaren gaia, 2015erako %80 igon eta 2016rako guztizko berdintasuna lortzeko.

Honelaxe amaituko genuen berrikusketa hau, baina enpresari ez zitzaion, bada, hoberik bururatu **abenduan** espansio deritzonetik Euskadira lekualdaketa berriak iragartzea baino! Eta era horretan, Gabonak ere hondatu zizkiguten guztioi, baina batez ere iragarkiak eragindako 21 pertsonari. Batzuk eta besteak, denok nahi izanez gero, prest daukazue CCOO sindikatua, aldi berri honetan behar dituzuen gestioak egiteko.



Eta, orain bai, honaino, CCOO sindikatua buru dela, 2015eko jardura sindikalaren garrantzizkoenaren kontaketa da. Gehiago ere izango zen, baina agian ez hain begibistakoa: plantillaren arazoak konpontzeko borondatea eta ahaleginaren faltarik ez zen egon. Gainera, ezin da beste era batera izan, eta horregaitik sartu gara 2016an gogoz beterik!

Betiko moduan, zeure esanetara.

Oporrak noizko



pensatu duzu?

Pentsatu duzu, ba, noiz hartu nahi dituzun urteko oporrak? Ez? Eta zeri begira zaude? Laster baten arrapaladan egin dezazula esango dizute!

Gogoan daukazu iazkoa? Bost egunetan! Bost egun baino ez zure bikotearekin/edo ez ados jartzeko/ edo ez jartzeko, eta noiz/non eman zeure oporretako 27 egun horiek data zehatzetan adierazteko, beti ere beste lankideen oporrekin "koadratuta", eta azkenik bide ofizialetik zeure lehentasunen berri emateko.

Erratuta ere egon gaitzke, baina, urte hasieran eduki dugun nahastea tartekoa dela, ez dugu uste oraingoan ere gertatuko ez direnik berriro aurreko aldietako ohitura txarrak. Eta bai berriz, arrapaladan egin beharra! Seguru baietz!



Presa eman ere emango digute, langileen horrenbeste irteera berri gertatu arren, bulegoetako eta lan-lekuetako plantillak guztiz zehaztu barik daudenean; oraindik lantokiaren komunikazioa hartu barik dauden lankide asko dauzkagunean; ... eta urtero legez, oporrek gozatzeko unean bertan, egunak "aldatzeko" eskatuko digute.

Eta bide batez, zure aurreikuspenetarako (eta beste norbaiten erabakietarako ere bai), bete beharreko irizpideak gogoratuko ditugu eta koadro honetan azpimarratuko ditugu.

- 1) 27 lanegun dauzkazu.
- 2) Oporrak enpresaren eta langilearen artean adostu behar dira.
- 3) Bankuak oporraldi hori mugatu dezake, zerbitzu eta bulego berean oporrak bi langilek batera har ez ditzaten. Horrez gain, kanpoan utz dezake oporraldi antzean sasoi bateko ekoizpen-jarduera handiagoko aldiarekin bat datorrena, sindikatuekin berba eginez (oraingoz ez dute halakorik egin, eta orduan ez dago kanpoan utzitako aldirik).
- 4) Familia ardurak badauzkazu, lehentasuna daukazu eskola-oporraldiekin batera zeure oporrak hartu ahal izateko. Eskola oporraldiak har ditzakezu, nahi izanez gero, baina ez da derrigorra txandan aukeratzea. Egoera honetan, edo beste edozein kasutan ere, maila eta aintzinasunaren arabera erabakiko da.
- 5) Oporrak zatika eta muga barik har daitezke. Zatiketa hori zeuk eskatzen baduzu, lehentasunezko aldia batean bakarrik erabil dezakezu, eta ezin izango duzu beste opor-zatirik hartu, harik eta zure bulegoko edo zerbitzuko beste langileek txanda horretan eurena hartu arte.
- 6) Eskubidea daukazu oporrak hasi baino hilabete bi lehenago zure oporrak zeintzuk diren ziur jakiteko. Zure eskaeraren erantzuna enpresak aurkezpena egiteko emandako epea amaitu eta hilabete batera hartzen ez baduzu, opor-datak ontzat emandakotzat ulertu beharra dago. Kontuan hartu, esaterako, oporrak martxorako eskatzen badituzu, epeak laburragoak izaten direla.



Jardueraren ebaluazioa



Behin eta berriro!

Urtero, urte hasieran ebaluazio sasoian gaude. Berriro ere Kutxabank unibertsoa nahastu egin da, eta berehala sortzen dira guztiontzat (Giza Baliabidekoentzat izan ezik) ezagunak diren objetibotasuna, justizia eta probak egiteko erabiltzen diren irizpideen gaineko kexuak. Nahigabe honi subjektibotasun-maila (mehatxua ez bada) gehitu behar zaio, baten baino gehiagotan proba horiek egiteko arduradun batzuek ezarri duten subjektibotasuna alegia; beste batzuetan, berriz beste arduradun batzuek (ezagutzen ez gaituztenek, gutaz ezer gutxi dakitenek) egiten dituzten beheranzko errebisioak alegia.



Beldurra zabal dabil, eta enpresak antza denez egoera horretan gustura dabilela erakutsi nahi du. Badira arduradunak (ez orokorrean, baina egiten dutenak ez dezatela ihes egin ohitura onak aipatzeko zabaldutako parentesi honengatik) euren ardurapeko langileen artean larritasuna zabaltzen ekinez dabiltzanak. “Latigoa eskuan” dutela, mehatxu egiten dute halako edo bestelako ikastaroa egin ezean, hitzarmenak esandako arratsaldeetan baino gehiagotan beharrean joan ezean, edo... honek bere balorazioan eragina (negatiboa, jakina) edukiko duela. Profesional eskasak dira hauek, bere ardurapekoak euren kapritxoan arabera era negatiboan markatzen dituztenak, eta egoera berezi-bereziak egon daitezkeen arren, holakorik kontuan hartzen ez dutenak.




Den-dena salatu ere salatu egin dugu, baina gure enpresak ez du jakitun egon nahi. Era batera eta bestera esan izan dugu: **ereduak aldaketa sakona behar du, falta duen objetibotasun-plus hori eta justizia bere gain hartuko lukeen aldaketa.** Aldaketa honek jardueraren ebaluazioaren helburua bete beharko luke: **pertsonen garapena bultzatu eta finkatu.** Egokitzapen honek bermatu behar du ebaluaziogaiaren inguruan egokitzat jotako alegazioak txostenean batzen direla. Aldaketa honek jaso egin behar du historial bat, bertan ikusteko nola joan den ebaluazio-prozesu bakoitza, nork egin dituen aldaketak eta zergatik. Eta, bistan denez, horretarako ezinbestekoa da langileekin eta euren ordezkariekin kontaktzea.



Bai behintzat, enpresak oihu honi gorrarena egiten dion bitartean, RSE delakoan gero eta indar gehiago ematen zaio kontziliazioari eta plantillaren onarpen mailari. Baina egunen baten enpresatxosten honek –etxetik kanpora hain ondo geratzen danak- dagokion ikuskera kritikoa erakutsi beharko du. Eta orduan...

Arrisku psikosozialak

Eragile psikosozialak



Oraintsu enpresak intraneten bidez eskerrak eman dizkigu langileoi, arrisku psikosozialen ebaluaketaren inguruan egindako inkestan parte hartzeagatik. Guk ere eskerrak eman nahi dizkiegu, eta hemendik egiten dugu.



Bere oharrean esaten duten bezala, txantiloia %60ren erantzun indizera heldu zen. Nahiz eta aurreko esperientziengatik, kutxa desberdinak ginenean eta portzentai altuagoak lortzen genituenean, parte hartze maila altuagoa espero genuen arren, txarto ez dagoela esan beharrean gaude, lan arrisku honen detekzio eta zuzentze prozesuarekin aurrera jarraitzeko aukera ematen digu, beharbada sailkatzeko konplexu eta zehazteko zailena.

Orain informazioa aztertzea eta ondorioak ateratzea egokitzen da, antzematen diren gabeziak, atera daitezken arazoei konponbidea aurkitzera bideratu behar dira. Eta ez dugu zalantzan jartzen enpresak dena aurrera ateratzeko erakutsi duen borondate argia.



Lanean ondo egonez gero,



**HOBETO
BETE
EGINGO
DA LANA**



Arrisku psikosozialak ere lan arriskuak dira.



CCOO sindikatuak osasun laboralaren alorrean beti era eraikitzailean eta oso zorrotz jardun izan du. Horretan, erreferentzia argia gara betidanik.



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxa: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta
Datu Aldaketa

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA			
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA	HERRIA		
JAIOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA		SEXUA	LANBIDEA		
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA			
			EZ	BAXUA	ERTAL	ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZIOA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA	
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA	LANTOKIA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA		FEDERAZIOA	SEKTOREA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA	KONTRATU MOTA

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren arabera lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen arabera federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerarekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

Baimena ematen diot CCOOko K.S.ari ordaindutako kuoten inguruko datuak dagokion Lurralde Ogasunari emateko, PFEZan zergak arintzeko helburuarekin.

AFILIATUAREN SINADURA

ZORDUNTZE ZUZENETIKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskabidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketari Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketari Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketak egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketak hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria		Herrialdea		
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR)					
	C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			

NAN edo AIZ

Sinadura